


Juan San Martín: “Euskarari eman dizkiot ordurik oparoenak”

Juan San Martín ezaguna da euskal mundu guziaz. Juanito egunotan oporrik gabe dabil, «emaztea Mutrikun du ni hemen ari naizen bitan» dio lanerako duen gela zabal, handian. Euskararien Nazioarteko Jardunaldien zenbait paper, egitarau eta foileto luzatu dizkigu sartu bezain azkar, Sebero Altuberen argazki eder bat ere bai, «Ezkonduta zenekoa duzu argazki hori» esan eta gure magnetofoiarentzat entxuferrak baten bila hasi da. Elkarrizketa guziaz aenkdotez jostatu dituko da, Juanito komasari ona da, hainbat eta hainbat bileren ondoren edo gauak kontatzeko materiala geratu zaio.



ERE.— Juan, zu sozialista eibartar haietakoa omen zinen gaztaroan.

Juan San Martín.— Beno, familiatik zetorkidan hori. Nire aitona liberala zen, oso gizon irekia eta eliza gauzetan sinesten ez zuena. Aita berriz ugetista nuen. Eta ni giro honetan hazi nintzen.

ERE.— Nondik, bada, zure abertzaletasuna?

J.S.M.— Hamazazpi urte inguru haietan ahal nuen denbora guziaz hartzen nuen mendira joeteko. Bakarrik ala lagun artean. Artzaiekin eta baserriarrekintzatzea gustatzen zitzaidan. Banuen artzai adiskide bat ipuin mordoska kontatzen zidana. Eta ipuinak apuntatzen hasi nintzen euskaraz. Erabiltzen nuen ortografia gaztelaniazkoa nuen, ez bai nenkien besterik. Bestetik, mendira taldean joaten ginenean, banituen asiskide abertzaleak eta baita adiskide sozialistak ere. Ezbaida politikoa ugari izaten genituen. Eta mendian euskaltzale egin banintzen, ez zen menditik urruti gertatu nire abertzaletasuna ere.

ERE.— Orduan hasi zenuen prozosa ez duzu gehiago baztertu. Zu autodidakta izan zara gainera.

J.S.M.— Bai, iritsi zen soldaduzka garaia eta euskararen arazoak kezka-

turik nengoenez, Zabala Aranaren gramatika hartu eta han ikasi nuen euskaraz idazten. Garai hartan erosi nituen Azkueren «Euskalerrriaren Yakinza» tomoak ere. Eta liburu honen bidez konturatu nintzea nik artzaiari bildu nizkion ipuinak lehendik ere bilduak zeudela. Lehen ere lanike egin zela.

ERE.— Baina autodidakta ez euskara gaietan bakarrik.

J.S.M.— Ez, euskal munduari dagozkion hainbat eta hainbat gaietan. Euskara eta etnografia, artea eta prehistoria, alpinismoa eta espeleologia, geologia eta hainbat gauza ikasten joan naiz. Agian inon espezializatu gabe, gauza batek harrapatzen nauenean bete-betea ematen direnatakoa naiz, oso sartu nintzen Arantzaldi taldean eta han egin dut makina bat lan, kurtsilo eta horrelakorik.

ERE.— Berrogeita hamar urte inguru haietan zure poesiak agertzen hasten dira «Euzko Gogoan». Poesia soziala egiten hasi zinen.

J.S.M.— Poesia soziala geroago hasi nintzen egiten. Haseran nik poesia existentziala idatzi nuen. «Euzko Gogoa»n eta «Egan»en. Unamuno oso gustokoa nuen eta haren bidez ezagutu nuen Kierkegaard ere. Orduak eta orduak igarotzen nituen ira-

kurketan. Kontutan har ni langile nintzela, tailer batetan egiten nuela lana tornero bezala. Gero jefede taller egin ninduten bai, baina utzi egin nuen gero lan hura. Ba, ordu ugari ematen nizkion irakurketari eta Unamuno eta Kerkegaard ezagutzen banituen, ezagutu nituen berehala Sartre eta Camus ere. Soldaduzka garaian, Madrilan, Varela liburutegian hegoamerikako edizioak erosi nituen, hemen ez zen haien obrak publikatzen eta.

ERE.— Poesia soziala noiz? Arestik baino lehenago, inoiz esan den bezala?

J.S.M.— Ez, ez, Arestirekin bateratsu. Begira, nik Meaberen poema bat itzuli nuen eta Aresti harritu eta poztu egin zen, garai hartako euskal giroan inor Meabe itzultza ausartu zelako. Nik banituen Meaberen fabulak eta Arestik eskatu eta euskaratu zituen, urtetan izan zuen Gabrielekek nere liburual. Hitz aspertu luzeak izaten genituen Arestik eta nik poesiaz, literaturaz eta hainbat gaiaz. Haren «Harri eta Herri» argitaratu zenean, iraultza bat gertatu zen euskal poesian. Beldur ginin.

ERE.— Beldur zertaz?

J.S.M.— Liburuak izango zituen erreakzioez.

ERE.— Baina ez zen hainbesteko erreakziorik gertatu.

J.S.M.— Ez, erreakzioak positiboak gertatu ziren ia denak. «Maldan behera» liburu gisa publikatu izan balu ez zuen halako arrakastarik izango.

ERE.— Urte inguru haietan Euskaltzaindikoa ere izendatua izan zinen. Baina nork ezagutzen zuen «Otsalar» izenpean zeuden poesien egi-lea?

J.S.M.— Zenbait artikulu eta lan ere publikatuak nituen. Jende gaztea sartu behar zela Euskaltzaindian eta ni ere hautatu ninduten. Hala ere, pentsatzen dut nik garai hartan egin nuen lan bategatik izendatu nindutela euskaltzain: Eibarko lantokietan bildutako hiztegi teknikoak agina nuen eta lan hau kontutan hartu zutela pentsatzen dut ni euskaltzain izendatzeko.

ERE.— Eta handik urte gutxi barru euskaltzain oso.

J.S.M.— Bai, Sebero Altube hil zenean. Nik beti esan dut gure artean izan dugun Altube hizkuntzalari trebeari itzala egiteko gauza ez nintzela, baina tira, hura Deba arroako zenez, eta ni ere bai, horra hor zergatik izendatu ninduten euskaltzain oso.

ERE.— Juan, Sebero Altubek bere jakituria eman bazion Euskaltzaindiari zuk ere zerbait emango zenion.


J.S.M.— Hori egia da, nire lantegiko esperientziagatik edo antolatzaile ona izan naiz beti, gauzak antolatzea, organizatzea gustatu zait. Eta garai hartan behar zuen antolamendu honetan lan egin nuen. Ez nik bakarrik, noski, baina izerdi asko eskaini nizkion langintza honi. Idazkaria nintzenez, neri zegokidan organizazio lana. Eta lan honetan zerbait eman dudala deritzat.

ERE.— Arantzazuko bilkuran, euskara batuaren lehen urratsak markatu zirenean, zu ez zinen hartutako bidearen erresponsable zuzena izan.

J.S.M.— Nola ba, ni hizkuntzilaria izan ez eta? Bersterik da gogo guziz kolaboratu nuela, baina lana egin, hizkuntzalarien lana zen hura.

ERE.— Hala ere, eta Mitxelenarekin batera, zu izan zara akuilu zorrotzenen eztenkadak hartu behar izan dituzuna.

J.S.M.— Eta ez dakit oraindik ere zergatik. Beno, ni garai haietan nahiko abertzale arraroa nintzen. Berrogeita hamar, hirurogei urte inguru hartaz ari naiz orain. Euskaldun fededun batasuna ez zen nigan kumplitzen, eta zenbat jende federik gabeko abertzalerik ezin zitekoela esaten zuena! Nik gainera sozialistatzat jotzen nuen ni e burua, hori mundu guziaz zekien gauza da. Komunista bezala salatu nindu ten berriz. Ni ez naiz sekula komunista izan, nahiz ikusten ditudan Marxen alderdi onak. Baina baita txarrak ere. Eta giro honetan akuiluak neregana zetozela? Etorri zen makina bat, eta oraindik ere ez dut gehiegi ulertzen zergatik



saiatu ziren hainbeste nerekin.

ERE.— Euskaltzaindian egon zaren garai osoan beti saiatu zara instituzionalizapenaren alde.

J.S.M.— Bai, nik hortik ikusten diot bidea Euskaltzaindiari eta hor saia tu izan gara, instituzio bezala funtziona dezan, eta instituzio bezala itzal haundiagoa, babes hobeagoa izango duelakoan.

ERE.— Ez zenuen zalantzik izan euskara batuaren bidea hartzerakoan.

J.S.M.— Zalantza, zalantzik ez. Nik ongi deritzot euskalkien desarroiloari, begira, nik neuk ere eibartarrez hitzegien diet nire semeei, baina hauek ikastolan euskara batua ikasi dute, eta ez da inolako oztoporik gertatu. Batuarekin batera desarroila

daiteke etxekoa ere. Baina herri haundiek batasun politikoaren garaian batasun linguistikoa aurrera eraman badute, arrazoin gehiago dugu guk horretarako. Hori ulertzen ez badugu... Eta desarroilatu den euskara batua ez da zerbait berria, horko elementu guziaz euskarak dituenak dira, ez dugu beraz ezer asmatu, planifikatu eta erabaki baizik.

ERE.— Ez zara gai hauetaz full time dedikatu.

J.S.M.— Ez, oraintsu arte ez. Bannuen goizetik lan profesionala, makinarria baten errepresentazio teknikoak neraman. Beti atsegin izan zait lan hori, zenbat ordu eman ote dizkiot dibujo industrialari!, baina utzi egin nuen eta orain egun guziaz dut gai hauetarako.



ERE.—Eta basera batetan dibertsifikatua bazen zure euskalzaletasunaren joera, dibertsifikatua da orain ere.

J.S.M.—Gai asko ukitu ditut, eta eibartarrek esango luketen bezakoa, ilustrau samarra naiz zenbait gaietan.

ERE.—Arte kontuan, adibidez.

J.S.M.—Bai, poza ematen didaten deskubrimenduak egin ditut batez ere Gipuzkoan. Taula erromaniko bat, gotiko batzuk, errenazimenduko erre-
taula zoragarri bat... Behin, Jose Azurmendirekin Seguran nintzela, hango elizako zoko batetan sagrario bat ikusi nuen. Valladolideko eskola-
koa behar zuela izan. Eta hala gertatu ere, Gregorio Fernandezena hain zuzen. Nik arteaz ezer jakin ez banu, ez nintzen sagrario hartaz batere kizkatuko. Horrela gertatu zait beste zenbait gauzeekin ere. Orain bi igande gasteropodo iazimentu garrantzitsu bat topatu dut. Fosilek adierazten dutenez, gasteropodo hauek metro

J.S.M.—Baina ez naiz espezializatu eta ez dakit posibilitateak izan ditudan ere. Espezializatu banintz? Auskalo! Hala ere, gustora nago egin ditudan lanekin, ikasi ditudan gauzeekin, alor guzietan morroi gisa, zerbitzuan.

ERE.—Eta euskara...

J.S.M.—Bai, euskarari eman dizkiot nire ordurik oparoenak. Kezkatu

Askok akuilatu naute eta ez dakit oraindik zergatik

nau eta kezkatzen nau hizkuntzaren etorkizunak, badakit ez dugula Euskal Herririk izango euskararik gabe, eta horrek gidatzen du eta gidatu du nere euskal lana.

ERE.—Eta euskararen etorkizunaz kezkatutik?

J.S.M.—Bai, oso kezkatutik. Orain

riari, ongi janari, bapo bizitzeari eman dago, ez da erreserterik ikusten, eta hortik soluziobiderik ez dago, ez baita milagrorik gertatuko.

ERE.—Zertara dator «Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak» delako antolamendu hau?

J.S.M.—Orina urte pare bat pentatu nuen honetaz, eta urtebete be-
raundago aurkeztu nuen Euskaltzaindian, ideia, ongi gorpuztu eta gero. Jakina da hizkuntzalari asko ari dela euskararen inguruan azterketak egiten, baina hizkuntzari horiek ez dute elkarren berririk. Horregatik Jardunaldi hauek batu egin nahi dituzte hizkuntzalari hauek, elkarren berri izan dezatela, elkar ezagutu eta lenen berri izan dezatela. Garesti joko du honek, baina badago «Bai Euskarari» kanpainako remanente bat ere horrekin moldatu beharko inork laguntzen ez badigu behintzat. Kontutan har munduko toki gehienetako datozela hizkuntzalariak, hogeitaka inbitazio pasa eta bil bakarrik adierazi dute ezin etorria.

Japoitik hiru hizkuntzalari, Suezia-
tik, Alemaniatik, Frantziatik, Inglate-
rratik, Estatu Batuetatik, Suizatik...
datoz hizkuntzalariak. Bidaia eta egoitza ordaintzen dizkiegu. Eta diru asko suposatzen du horrek. Hala ere, lanak merezi duela deritzagu.

ERE.—Ponentziak baino hizkuntzalari gehiago beraz.

J.S.M.—Bai, baina kontutan har ponentzietatik aparte ere komunika-

Arestirekin bateratsu hasi nintzen poesia soziala idazten

t'ardi ingurukoak dira, erraldoiak. Arantzadik badaki deskubrimendua-
ren berri. Eta alor honetan ere, geolo-
giak ezer jakin ez banuen, estratoen dibersifikaziori buruz ezer jakin ez banuen, topatuko nuen fosila, lehen fosila, baina iazimentua ez.

ERE.—Zerbaitetan espezializatu izan bazina...

jendeak drogez hitzegiten du baina hemen beti izan da droga, alkohola-
ren droga. Jendeak badirudi mila-
groetan sinesten duela, baina ez egu-
neroko lanean. Eta herri guzia, alfe-
rrikako hitzak baztertu, eta bere etorkizunaz kezkatzen ez bada, zer egin gutxi dago. Euskararen arazoa ere gu guziona da, baina jendea eda-

zio ugari izango direla, ia hizkuntza-
lari guziek dakarte komunikazioren
bat, denak euskara ardatz hartuta.

ERE.—Baina euskararen arazoa une honetan bi mailetan berez dai-
teke. Alde batetik, euskararen oina-
rriak bilatzearena, eta, bestetik, hiz-
kuntzaren zabalkundea.

J.S.M.—Hori hala da. Jardun-
diek lehen arazoari erantzungo diote
gehienbat. Eta bigarrenari buruz, be-
har beharrezkoa dugu jendea espezia-
lizatzea, metodologiak ikasi eta apli-
katzea. Posible da sei hilabetetan
euskara ikastea, hori gertatzen da
beste zenbait lurraldetan, Israel eta
Estatu Batuetan adibidez, eta bide
horiek urratu behar ditugu. Euskara
ikasteko metodologiak lantzen eta sa-
kontzen ditugun neurrian eta gero
martxan ipintzen, orduan lortuko
dugu hain zuzen euskararen aurrera-
kada nabaria. Baina lehen ere esan
bezala jendeak honen koszientzia be-
har. Nagikeriaz eta ongi bizi nahiaz
lortzen ez den koszientzia.

A. L.